

EDITORIALA

PSOE-REN BAKEA

Euskadiko oraingo gizarte eta politiko-egoerak beronen arduradun nagusiez eta batez ere PSOE-z pentsatzera eragiten digu. Egoera ezin larriagoa da, izugarria. Gaitz bat beste gaitz batez ordezkutzen denean, egoera hori tragikoa dela esan ohi dugu. Tragedia honen egile eta eragile PSOE da.

- 1.- Eurek egindako legera behin eta berriro, muga eta akats gabekoa bailitzan, jotzen denean:
 - eurek egin duten legearen indarra eten gabe aipatzen dutenean (eta gogora dezagun Hitler-ek, Franko-k, Pinochet-ek eta Ekialdeko komunistek horixe besterik ez zutela egiten: legez jokatu zuten beti);
 - eurek bete ez, eta areago oraindik: edozein egitasmotan legegaren aurka jokatzuz, inori legera deitzeko harropuzkeria dutenean;
 - askatasuna ahotan eta ekintzetan zapalkuntza nagusi denean;
 - oinazeak, tratu txarrak eta irainak eguneroko zera direla jakin arren, «legezgo demokrazian» gaudela-ta, giza-eskubideak aipatzen direnean;
 - besteak agintzen zeudenean txarra zena, orain berauek agintzen daudelako beste barik on bihurtzen denean;
 - ez bakarrik burruka harmatua, baina ETA-ren helbururen batzuk, politika mailan, helburu onak izan daitezkeela pentsatze hutsa zigorgarri denean;

Orduan neo-fasista gisa jokutzen ari direla ezin ukatu. Joe-

ra paranoikoa nabari da PSOE-n.

Hortik «ni naiz egia eta bakea» esatera, alde handirik ez dago; beraz, nortasuna eta ohorea galzorian dutela esan behar.

2.- Bakeaz hitzegin eta gorrotoa sortarazi.

- Euskadiren ona nahi dutela esan eta zatiketaren eta amorrua-
ren sua biztu. Hori al da PSOE-k eskaintzen duen bakea?
- Elkarrizketarako promesak egin eta aurrekoari ahoa itxi: hori
al da PSOE-k elkar-bizitzarako hautatzen duen irtenbidea?
- Elizaren dotrinan eta pentsakeran ere muturra sartzeak (eta
hori sarri-sarri egiten du; gogora dezagun kristau-ikasbideen
auzia), ez al du neo-faszismoaren agintekeria adierazten?
- Euskal Apezpikuei, gure kultura-erakunde batzuri eta EAJ-ri
ETA-ren babesle direla leporatzea, arazo horretan PSOE-ren
idea eta bideak onartzen ez dituztelako, ez ote da neo-
faszismoaren ezaugarririk argienentariko bat...?
- Etorkizunerako eta biharamonerako, beteko ez dituzten pro-
mesak eginez eta komunikabideak euren gogara erabiliz, he-
rria atzipetzen denean; harropuzkeriak egia ikusteko itsutzen
dituenean; Estatutoa aurrera ateratzearen kontua ahotan, bai-
na eguneroko ekintzetan hura nola indargetuko ari direnean;
- Elkarrizketa gora eta elkarrizketa behera ihardun eta, bi urte-
ren barruan transferentzietarako batzorde mistoak, EAJ-k
behin eta berriro eskatu arren, batzar bakarra egin duenean;
horrelako zapalkuntzak eginez, PSOE-k ez ote du galdu bere
ohorea, ez ote du galdu sineskortasuna batipat bakea ereiki-
tzeko orduan?
- Guzti hau somatzen dugunean, ondorio hauek berez-berez
datoz: demokrazia-hitzen mozorropean faszista gisako dikta-
dura berri batetan gaude; edo eta nortasuna galzorian dute
harropuzkeria ero-horregatik.

3.- Kristauaren bakea ez da lege hutsetan oinarritzen, bere ekin-
tzen moraltasunean baizik. Legeak berez ez du gauza handirik

esan nahi, okerra eta moraltasunaren aurkakoa ere izan daiteke eta. Horrela balitz, kristauarentzat kontzientziaren esparruan indar gutzia galduko luke.

Legeak ez du mugagabeko baliorik, sozialistek behin eta berriro, gaiso antzeko atsegin makurrez, sinestarazi nahi digute-nez. Baina benetan irrigarria eta lotsagarria zera da: eurek ere ez dutela gero betetzen...

Areago oraindik: Norbaitzuk ETA babestea, honen helburuak onargarriak izan arren (batzuk behintzat), erabiltzen diren bideengatik, kristau bati ez zaiola zilegi uste badute, beste horrenbeste esan genezake PSOE-ren gobernuaz ere: Gobernu horren helburuak onargarriak izan daitezke, baina kristau bati ez zaiola zilegi haren alde egitea, bideak moraltasunaren aurkakoak badira. Legean ibiltzea, besterik gabe, ez da ederretekoa. Hitlerrek, Francok eta Ekialdeko komunistek legez jokatu zuten eta orain ere komunistak eta legean dabilta.

Felipe Gonzalez-ek oinazetik (torturarik) ez dagoela, konstituzioak debekatzeko duelako; edo eta askatasun osoa dagoela, konstituzioak babesten duelako dioenean... umekeria eta falsokeria handiagorik ezin esan! Konstituzioak jabetza pribatua ere babesten du, eta beraz, Espāñan ez du inork lapurretarik egiten... Bapo! Baina nor atzipetu nahi dute? Edo eta harropuzkeriak hainbestearaino itsutzen ote ditu, gobernatzeko ere gauza ez direla utziz?

Bakea ez da indarrez eta goitik behera ezartzen; horrela une batetako berealdia bakarrik lortzen da. Iruzurkeriaz ez dator bakerik. Iruzur eginez, behin-behineko bakea sor daiteke bakarrik. Bakea, eginez egiten da. Egiaren bidetik etorri ohi da bakea. Egiarik gabeko bakerik ez dut nahi. Berba hutsezko bakerik ez dut nahi!